

Joseba Azkarraga

«Akordioa ezinezkoa da guztion giza eskubideak geure egin gabe»

Agurain, 1950. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua eta Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia. EAK martxoko hauteskunde autonomikoetan bakarka aurkezteak ez du bere baietza jaso, erabakia legezko eta zuzentzat jotzen du alabaina.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

Joseba Azkarragak *Euskadi sin renuncias. Un ideal posible* (Txertoa) argitaratu du berriki: “Liburuak herri honen azken 40 urte politikoak jasotzen ditu, hauetako 30etan neroni parte izan naizelarik; 1993tik 2001era bitarte alor pribatuan aritu nintzen. Lekuko izan naitzen gertakari politikoen nondik norakoak azaldu ditut. Herri honen izaera eta ikuspegi anitzi beste bat gehitu nahi izan diot, neure analisia” adierazi digu solaskideak.

Liburuan, besteak beste, ETaren eta Espainiako gobernuen arteko elkarrizketak eta normalizazio prozesuak hizpide dituzu, porrotarekin amaituak denak. Zu zer inpresiorekin geratu zara?

Bada, lehenik Xibertan eta gero Aljerren, Lizarra-Garazin eta Loiolan saiatu zela, eta behin eta berriz saiatu behar dela.

Zein da porrotaren arrazoia? Hertsiki esanda.

Funtsean, aldeek ez dutela ulertzen besteek ere arrazoi partea dutela, eta alde bakar batek ez badu bere jarrera aldatzen zaila dela aurreratzeari. Nire inpresio orokorra hau da: elkarrizketarik gabe ez dago soluziorik, beraz, politikoa ez den beste edozein soluzio partziala izango da, dela poliziala dela judiziala.

Bederatzi urte eman zenuen politikatik at. Politikara itzuli ostean, bi legealdi egin dituzu



Eusko Jaurlaritzan. Damu al zaizu bueltatu izana?

Ez, ez naiz damu. Noski, nork bere erabakien ondoriozko akatsak eta asmatzeak aztertzen ditu. Nire ibilbidea aztertzean, osoa kontuan hartu behar dut. 2001ean politikara itzuli nintzen asko pentsatu ondoren: lagunek eskatuta –Carlos Garaikoetxea eta Begoña Errazti, besteak beste– eta hauteskundeetarako ilusioa berpiztu zuen koalizioak motibatua; EAJ-EA koalizioak 600.000 boto jaso zituen. Une onak eta interesgarriak bizi izan ditut, batzuetan “damu edo zama” sentitu dut. Bizitzaren alde osagarriak dira, denak du bere ifrentzua. Orain, ondo bidez, nire jardura profesionalera itzuliko naiz.

EAEko datoen hauteskundeetan ez da EAJ-EA koalizioa errepikatuko. Zein da zure iritzia EAren erabakiaz?

Nik EAJ-EA koalizioa defendatu dut nire alderdian, baina gehiengoak erabakitzen duena onartu beharra daukat. Bakarka joateko erabakia legez eta gehiengoz hartua da. Nik erabakia errespetatzeaz gain sostengatu behar dut. Nire ikuspuntutik apustu arriskutsua da.

Zergatik?

Une politikoa oso zaila delako, espainol nazionalismoa indarrak batzen saiatuko delako. PSEk eta PPK 38 eserleku lortzen badituzte, ziur naiz, Patxi Lopez lehendakaria izateko akordioa lortzen saiatuko direla. Partaide naizen Gobernu honek –herri honen garapen sozio-politikoaren eta ekonomikoaren ardatza– erakutsi duen sendotasuna errepikatu beharko litzateke.

EAren erabakiak politika uzteko zure erabakian eragin al du?

Ez, inola ere. Edozein dela hartzen dudana erabakia, hau ez da hauteskundeetan aurkezteko EAKo erabakiak eraginda. Gainera, politikan oso beharrezkoa da pertsonak eta kolektiboak berritzea, alderdietan zein instituzioetan. Berriz diot, EAK egin duen aukera legezkoa eta zuzena da.

Unai Ziarreta presidentearen ustez EAJ “lehengo garaietara” itzuli dela koan baztertu du EAK koalizioa.

“ETAren jarrera autista da eta guztiz kaltegarria herri honentzat, espainol nazionalismoaren aliatu onena da. EAK polo abertzale subiranozalea garatzea eragozten du”.

EAJ alderdi anitza da. Galdetzen badidazu Bilbao, Azkuna edo Ortuzar jaunak itzuli ote diren Ardanzen garaietara, bada baietz esango dizut. Baina galdetzen badidazu Ibarretxe lehendakaria iragan garaietara itzuli ote den, ezetz esango dizut.

Ibarretxerekin bat egiten duzu erabat.

Dudarik ez. Ibarretxe Gobernuaren programa betetzen saiatu da, Gobernuaren programari leiala izan da.

Herri galdeketa burutu ez izana da zapuzgarriena, agian. Zer balorazio egin duzu egindakoaz?

Espainiako Gobernu batek beste behin ere, kasuon PSOEkoak, Auzitegi Nazionala erabili du Eusko Legebiltzarrak sortutako legea galarazteko. Baina legea eta kontsulta hemen finkatzeko heldu dira, gure planteamendua ez da betiko gelditu debekatua izan delako, inola ere ez. Planteamendua hor dago. Gizartea kontzientziatu da eta berandu baino lehen kontsulta egingo da. Duela 30 urte autonomia aldarrikatu zen eta orain erabakitzeko eskubidea aldarrikatu da. Hau ez da 100 metroko lasterketa, iraupen-lasterketa baizik. Herri honen eskubideen defentsaz ari gara eta lortuko dira.

Auzitegi Nazionala hizpide, nola ikusten dituzu EAEko hurrengo hauteskundeak Alderdien Legea tarteko?

Espainiako Gobernu Alderdien Legea PSOEren interesetarako erabiltzen saiatuko da berriz ere. 2005eko hauteskundeetan EHA-Kren kasuan egin zuen bezala. EHAKri aurkeztu zitzaion baina ez arrazoi demokratikoak



direla eta, behar den bezala, EAJ-EA koalizioak lor zezakeen gehiengo osoa oztopatzeko baizik. Orain ere antzekoa egiten saiatuko dira. Ramon Jauregik ezker abertzaleko sektore baten zerrenda zuriek aukera izan dezaketela esan du. Espainiako Gobernu nazionalismo demokratikoak kezkatzen du, aiseago eusten dio ezker abertzaleari nazionalismo instituzionalari baino.

Hauteskundeetan ohiko zurrumbillean segituko dugu, beraz.

Bai. Espetxe politikan hasi dira jadanik: Espainiako Barne ministro Pérez Rubalcabak EAKo hamar preso Euskal Herri inguruko espetxetara aldatuak izango direla esan du, “onak” direlako. Preso batzuen familiak ari dira zigortzen eta beste batzuk saritzen. Espetxe politika mota horrek ez du funtsik. Jokaera horiek arinak eta azalekoak besterik ez dira. Presoa Aljicirasen izan edo Zaragozan izan, preso dago. Ez gaitzen engaina, gatazka ez da Espainiako Gobernu saiatzen ari den bezala konponduko...

(...)

Gatazka politikoa izan den beste herrialdetan espetxe politikak modu ezberdinez funtzionatu du. Irlandan preso guztiak espetxe batean bildu zituzten. Gatazkaz eztabaidatu zuten eta iritzia IRARI helarazi zioten. Hemen hori ez da inoiz posible izan.

Hauteskunde kanpaina gaude honezkerok. Itxaron beharko da...

...bai, baina hara! Azken Foru eta Udal hauteskunde kanpaina Espainiako Gobernua ETArekin bildu zen, ETak su-etenaren amaieraren iragarpena atzera zezan negoziatzen saiatu zen. Interes elektoral dela medio gauza inportanteekin horrela jokatzeko gatazka modu arinez konpondu nahi izatea da, oker dabil arazoa horrela konpontzea espero badu. Arazoak sus-trai politikoak ditu eta euskal indar politikoek konpondu behar dute elkarrietzeta bidez, herri honek Estatuarekin izan nahi duen harremana akordatu behar dute. Gatazkaren gakoa erabakitze eskubidea da. Beste edozein neurri, erreforma estatutarioa edo edozein transferentzia puntual, horiek denak adabakiak dira. Gakoa autodeterminazio eskubidea da.

ETA eta Gobernuaren artean aipatu duzun bilera kontrastatuta al dago?

Noski. Eta kontrastatuta dago ere, sozialistek Loiolan izenpetzeko prest zeuden akordioa.

(...)

Hau da, sozialistek Batasunarekin konpromisoa hartu zuten euskal

gizarteak erabakitze duen eskubidea ontzat emateko. Baina ez bazen sinatu ez zen izan sozialistek ez zutelako nahi, ETak Batasunari sinatzea egotzi ziolako baizik. Hori ere kontrastatuta dago.

"Irlandan preso guztiak espetxe batean bildu zituzten. Gatazkaz eztabaidatu zuten eta iritzia IRARI helarazi zioten. Hemen hori ez da inoiz posible izan"

Loiolaraino egindako lasterketak segida izango al du?

Bai. Pertsonak eta alderdiek egiten duten ibilbidea iristen den punturaino iristen da, aldi batez gertatzen da baina egunen batean berriz segitzeko. Geldialdiak daude batzuek bidea oztopatzea nahi dutelako. Baina pertsona horiek ez dira beti hor izango, herri hau aldiz beti izango da eta aurrerago joan nahiko du.

Zer gertatzen zaio ETARI Loiolan sinatu nahi zena ez onartzeko?

Hori ETARI galdetu beharko zaio, ezta? Baita segitu nahi duen bidez galdetu ere. ETak ezin du segitu esaten herri honen defentsan ari denik, herri honen gehiengoak ez dela bere jokamoldearekin ados esan dionean. ETaren jarrera autista da eta guztiz kaltegarria herri honentzat. ETA da espainol nazionalismoaren aliatu onena. ETak eragozten du polo abertzale subira-

no zale eta autodeterminazioaren aldekoa gartzea.

Ezker abertzaleak egoera gainditzeko polo subiranozalea osatu eta indar metaketa egiteko proposamena egin die alderdi abertzaleei. Aldion EAJ alde batera utziz.

Ezker abertzaleak —edo bere burua horrela izendatzen duenak— badaki argi eta garbi, edozein polo subiranozalea osatzea ezinezkoa dela giza eskubide guztien defentsan aritzeko konpromisoa hartzen ez badu. Ezin da giza eskubide batzuk defendatu, haien urratzeak bere baitan mina eragiten dizutelako, atxilotuen torturak eta presoek dispartzioak esaterako, eta Inazio Uriaren hilketak gauza bera ez eragitea. Giza eskubideak ez dira zatigarriak eta hori barneratzen ez den bitartean edozein akordio mota ezinezkoa da.

ETAK Inazio Uriaren enpresaria hil ondoren, EAJk ANV Udal gobernutik kentzeko zentsura mozioa aurkeztu nahi du EArekin. Zein da zure iritzia?

Akordioa baldin badago mozioa aurkezteko, ongi etorri. Baina, akordioak herri bakoitzaren egoeraren arabera izan behar du. Ez du balio tokian tokiko alderdien arteko harremanak behartzea egoera areago konplikatzeko. Dena den, eta Azpeitiko kasua berezitu gabe, niri zaila egiten zait ulertzea alkate batek herritar baten hilketa ez gaitzestea, baita herri oso baten alkatea bezala ikustea ere. ■

www.argia.com

helbidean, elkarrietzaren bideoa eta bertsio luzea.

